naidoki arkitektura estudioa 2011. urtean jarri genuen martxan. Ordutik baserrien birgaitze lanetan sakontzeko aukera izan dugu. Eraikuntza tradizionala, harria, egurra, karea. Historiak baieztatu dituen teknika eta materialak erabiltzea gustatzen zaigu. Bere etxea maite duen jendearekin elkarlanean aritzeko aukera ematen digu. Jasangarritasun ideiei buruz hainbeste hitz egiten den garai hauetan, baserriaren munduan aurkitzen dugu dagoeneko funtzionatzen duen eredua.

Inongo konpromezurik gabe egingo diogu zure baserriari bisita!

PAUSOZ PAUSO:

* EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA
  · *itxiturak*
  · *egitura (egonkortasuna, xilofagoak...)*
* BEHARREN ETA AUKEREN AZTERKETA
  · *proposamena*
  · *distribuzioa*
  · *eraikuntza soluzioak*
  · *aurrekontua*
* TRAMITEAK
* PROIEKTUA
* ERAIKITZE LANEN JARRAIPENA

www.naidoki.com / info@naidoki.com
Ametzagaña 17, behea. Donostia.
Iñigo Echezarreta Pajuelo. 627465794
Olatz Jauregi Aizpurua. 652744032

*Baserria ezagutu_errespetatu_maitatu_berritu*

# naidoki
## ..............arkitektura

Baserriak berritu ahal izateko beharrezkoak diren arkitektura-zerbitzuak eskeintzen ditugu:

TEILATUAK
EGITURA-LANAK
DISTRIBUZIO BERRIAK
ERABILERA ALDAKETAK (NEKAZAL-ETXEAK...)
ERREFORMA ENERGETIKOAK



www.naidoki.com

## BASERRIA BERRITU?

Baserria gure ondare historikoa da, folkloretik haratago doan ondare historikoa. Historian zehar mantendu badira, garaietara moldatzeko izan duten gaitasunagatik izan da. Zergatik ukatu esentzia hori gaur egun? Gizartean izan duten papera mantentzeko eta etorkizunera luzatzeko, garai berrietara adaptatzen jarraitu beharko dute. Hortxe dago xarma.
Belaunaldi guztiei tokatzen zaie baserriaren mantenuan aportazioren bat egitea. Zure behar eta aukeretara moldatuko den proposamena egingo dizugu.

*↓ nekazal–etxea Bergaran*



*↓ teilatua Lazkaomendin*



## ARAZOAK?

Hotz egiten du eta ezin duzu berotu? Itotiak daude ganbaran? Hezetasunak? Egurrezko egiturak ez du itxura onik? Zoru eta horma zaharkituak? Erabiltzen ez diren espazioak eta logela txiki-txikiak? Leiho eskasia?
Publikoari irekitako negozioak egokitu ditzakegu zure baserrian: sagardotegiak eta nekazal-etxeak.
Konfort exijentziak gero eta zorrotzagoak dira: espazio berotuak, insonorizatuak, irisgarriak, berrituak...

## IRTENBIDEAK

XXI. mendeko bizitokia lor dezakegu: zure beharretara egokitzen den distribuzioa, azalera eraikia hobeto aprobetxatuz; egitura egonkortua, errefortzatua edo aldatua; itxitura berrituak teilatuan eta fatxadetan; akabera garaikideak; energetikoki efizientea eta ondo isolatuta dagoen eraikina; puntako instalakuntzak, baita energia berriztagarriak ere; material jasangarri, osasungarri eta kalitatezkoak; hezetasunik gabeko giroa...

*↓ sagardotegia Hernanin*



*↓ nekazal–etxea Bergaran*



## ZER ESKAINIKO DIZUGU?

- Arkitektoak gara. Arkitektura zerbitzuak eskainiko dizkizugu.
- Arazo errealei soluzio errealak.
- Egituraren kalkulua. (Legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzeko).
- Instalazioen diseinua eta kalkulua.
- Material tradizionalak eta teknologia berrienak. Bioeraikuntza.
- Zeure neurrira diseinatutako arkitektura.
- Planoak eta plangintzak. Oso garbi ez duzun hori definitzen lagunduko dizugu: espazioak asmatu, lehentasunak markatu, etorkizuneko ikuspegia sortu, obra zenbaterainokoa izango den erabaki.
- Birgaitze prozesua pausuz pausu azalduko dizugu.
- Profesional sarea. Proiektu bakoitzerako behar duzun lan-taldea osatuko dugu.
- Tramiteak kudeatzen lagunduko dizugu.